Erref. kodea: LAF-107-828

Izenburua: Gutuneria: ELOSEGI IRAZUSTA
Jesus

JESUS ELOSEGUI
BORDALABORDA
PASAJES DE SAN JUAN

TELEF. 62-57
(Vitamex, S. A.)

A1 9

1954-ko Uzta-k 15

VIII Congrès des Études Basques
Musée Basque     Bayonne (B.P.)

Lafitte apaiz jaunari:

Euskel-Batzar-Nagusia asia bide da or Bayona inguru ortan. Ba gera emen zenbait adiskide euskaldun "Defense de la Langue Basque" sailleko billera bat edo bestera azalduko nai gendunok. Zu zaitugu sail ortan buru ta zuri gaur ni eskean etoŕi. Aŕen, igoŕi nere bidez guri, zuen asmoen ta biltze-egunen xeetasun ta argitasun. San Inazio eguneko batzaŕa zaigu gogoko. Zu an izango al zaitugu? Nun ta zein ordutan asiko ba biljkura ?.

Congrès-erako izena eman degunak, mugaz onuntzakook, oso gaude uŕi jakin-bidez, "programme"z ta beste onelako iragarkiz. Igoŕi araz aŕen, ditezken argibide guziak.

Ba-dut zu ezagutzeko aspaldiko gogo beroa. Aurten Jauna lagun, Zure eskua estutu ta auréz-auréko ezaguera egiteko abagunea izango al det.

Zure zerbitzari ta menpeko

Elosegitar

**JESÚS ELÓSEGUI**
Igaralde, 7 - 3.º izda.
Teléf. (conmutado) 66 12 64
TOLOSA

Lafitte Pierre Calonje jauna
Pétit Séminaire
64 USTARITS
France

1976-Gabonilla-20

Jaun agurgarria:

Juan Jose Garmendia apaiz jaunaren esanez eldu naiz gaur zuregana.

Lekuona Manuel apaiz jaunaren omenez alako idaz-bilduma osatzen ari gera, ta iada 80'tik gorako idaz-lan bildu ditugu.

Zuk zeorrek, zerbait bialtzeko baizekoanbaźera, nai dezun gaiaz osatutako lantxoa, Lapurdiko euskera pollit eta zoragarri ortan osatutakoa, pozik artuko genduke Kardaberaz'tarrok eta ppzik, noski, izango litzake bein gutun-sorta argitaratutakoan, Lekuona apaiz jaun berbera.

Artu, Lafitte jaun agurgarria gure agurrik bero-beroena eta Eguberri zoriontsurako oparik biozkorrena.

Adiskide ta zerbitzari leial eta zintzo,